



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-11-25eko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko azaroaren hogeita bostean, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERETAKO AKTAK ONARTZEA.

2009ko uztailaren hogeita bederatziko ohizko saioaren akten zirriborroa ikusita; 2009ko irailaren hamalauko ezohiko saioaren akten zirriborroa ikusita; 2009ko irailaren hogeita bateko presazko ezohiko saioaren akten zirriborroa ikusita; 2009ko urriaren biko ezohiko saioaren akten zirriborroa ikusita; eta 2009ko urriaren hamaseiko ezohiko saioaren akten zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hurrengorako uztea hauen onarpena, hauek sakonago aztertzeke denbora gehiagoren beharra egoki ikusi ondoren.

BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-09-29ko 36/2009 Dekretua: SAIAZ mankomunitateak eskatutako kreditua bermatzeko Beizamako Udaleko UFFF egilestea.
- 2009-09-29ko 37/2009 Dekretua: 35.776.463-D kontratatzea gune naturaleko mantenamendu zerbitzuko peoi gisa abenduaren 31 arte.
- 2009-10-05eko 38/2009 Dekretua: Eginkizun anitzeko langilea hautatzeko probatan, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onatzea.
- 2009-10-05eko 39/2009 Dekretua: J.R.A.B.ek eta J.E.B.ek egindako eskaera aztertu eta zerbitzu teknikoei irtenbide egokiena bilatzea agintzea.
- 2009-10-05eko 40/2009 Dekretua: 34.093.547-Nek egin nahi duen instalakuntzari buruzko dokumentazio gehigarriaren eskaera.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2009-10-05eko 41/2009 Dekretua: 15.110.214-Lek eskatutako obra baimenaren luzapena ematea.
- 2009-10-05eko 42/2009 Dekretua: 72.414.353-A Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea.
- 2009-10-09ko 43/2009 Dekretua: 35.776.463-Dk egindako baimen eskaera onartzea.
- 2009-10-16ko 44/2009 Dekretua: 35.776.463-Dk egindako baimen eskaera partzialki onartzea.
- 2009-10-20ko 45/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 567,60.- €.
- 2009-10-27ko 46/2009 Dekretua: 15.984.250-D Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea.
- 2009-10-30eko 47/2009 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 6.624,11.- €.
- 2009-10-30eko 48/2009 Dekretua: Beizamako herriguneko hariteria lurperatzeko lanei dagozkion faktura ordaintzea. Guztira 32.211,99.- € (BEZ barne).
- 2009-11-19ko 49/2009 Dekretua: Estrata baserria berritzeko proiektua jendaurrean jartzea.
- 2009-11-19ko 50/2009 Dekretua: 34.093.547-Ak jarritako bermea itzultzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARRENGO GAIA

**ONARTZEA, BADAGOKIO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
BEIZAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA,
UDALAK BEREZKOAK DITUEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK BIDE
EXEKUTIBOAN BILTZEKO.**

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Halaber, aipatu Foru Arauak 8 artikuluan dio Udalak eta Foru Diputazioa lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagozkien guztietan.

Bere aldetik, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduari buruzkoak, 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Fiskaliterako eta Finantzatarako Departamentuko zergabilketa organoek beren gain hartu ahal izango



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

dute beste herri administrazio batzuen diruen bilketaren kudeaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren hitzarmenen bitartez.

Araudi horren babesean, Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30eko bileran erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuta dagoen Udal bakoitzaren artean sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredu onartzea, hain zuzen, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.

Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, Beizamako Udaleko Udaltzarak, kontuhartzaitzaren proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin honoko hau

ERABAKI DU

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du Udalaren zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura.

BIGARRENA: Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Beizamako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

LAUGARRENGO GAIA

**ONARTZEA, BADAGOKIO, ENERPELLET ENPRESAREKIN HITZARMENA
SINATZEA PELLET BIDEZKO ACS SISTEMA FINANTZATZEKO.**

Udal honek, 2008ko urriaren 14an egindako ezohiko udal batzarrean, Beizamako udalerrian pellet bidezko ur bero eta berogailu sistema eraiki, ustiatu eta mantentze, hots, obra publikoaren ustiaketa kontratua esleitzeko espedientea onartu zuen, udal honek sustaturiko proiektuaren arabera. Aldi berean, aipatu kontratua gauzatzeko, jardunbidea eta esleipena eta lizitazioarako oinarri bezala erabiliko diren Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartu zituen.

2008ko azaroaren 7an egindako ezohiko udal batzarrean, Beizamako udalerrian pellet bidezko ur bero eta berogailu sistema eraiki, ustiatu eta mantentze



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

kontratua Enerpellet SLri esleitu zion. Esleipena, 2008ko azaroaren 26an bi alderdiek sinatutako kontratuan islatu zen.

Hala ere, dirulaguntzen tramitazioa errazteko eta izapide hauen eskakizunak bete ahal izateko, Udalak fakturak onartu eta ordaintzea beharrezkoa ikusten da, kontratuaren esleipenerako baldintza zehatzen orrietan xedatutakoaz kanpo.

Aurrekoa ikusirik, esleipena arautzen duen baldintza zehatzetako 5.2 baldintzak araututakoa jarraituz eta urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, besteen artean, 223.2 eta 227.3 artikuluetan aurreikusitakoaz bat, Udaltzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Lehena.- Hitzarmena sinatzea Enerpellet S.L.-rekin, guztia normalizatzeko eta formalizatzeko. Hitzarmenaren baldintzak, ondokoak izango dira:

“COMPARECEN

De una parte: D. Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea, mayor de edad, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Beizama, en nombre y representación del mismo.

De otra: D. Jon Mikel Gorospe Bidea, con DNI 14.891.061-X, que interviene en nombre y representación de la empresa Enerpellet, S.L., en virtud del poder otorgado ante el Notario D. Juan Ignacio Gomeza Villa, el día 5 de marzo de 2007, con el número 476 de su protocolo.

Ante mi, D. Bittor Agirreurreta Murgia, Secretario - Interventor de la citada entidad.

ANTEDEDENTES

PRIMERO.- *El Ayuntamiento de Beizama, reunido en sesión extraordinaria celebrada el catorce de octubre de dos mil ocho, decidió, entre otros, aprobar el expediente de contratación para la concesión de obra pública cuyo objeto es la construcción, explotación y mantenimiento de las instalaciones para la producción de agua caliente y calefacción mediante pellet en el término municipal de Beizama y dar comienzo al proceso de licitación.*

SEGUNDO.- *El Ayuntamiento de Beizama, reunido en sesión ordinaria celebrada el siete de noviembre de dos mil ocho, decidió, entre otros, aprobar el expediente de contratación para la concesión Adjudicación a Enerpellet, S.L. Posteriormente, con fecha veintiséis de noviembre de dos mil ocho, en cumplimiento de lo que establece el art. 140 Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, se otorgó el correspondiente contrato.*



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TERCERO.- La empresa contratista ha desarrollado las obras e instalaciones objeto del contrato, y suministrar calefacción y agua caliente a las nuevas viviendas del ámbito R-21 de las Normas Subsidiarias de Beizama.

- No obstante, se hallan pendientes de conclusión: la legalización de las instalaciones realizadas por el Departamento de Industria del Gobierno Vasco, actualmente en tramitación.
- La obtención de la licencia de apertura por parte del Ayuntamiento de Beizama, para cuyo otorgamiento es necesaria la anterior.
- La finalización de las instalaciones de los siguientes edificios públicos: casa consistorial, natur eskola y aterpetxe, todos ellos sitos en el núcleo urbano de Beizama.

Sin embargo, ambas partes consideran necesario iniciar los trámites destinados a la financiación del trabajo realizado.

CUARTO.- Que entre los derechos reconocidos al concesionario en la cláusula 5ª del pliego de cláusulas administrativas reguladoras del contrato, se establece en su apartado 2º lo siguiente:

"5.2.- Abono de subvenciones:

El Ayuntamiento de Beizama se compromete a abonar en su integridad al concesionario las subvenciones y ayudas que pueda recabar por la realización de este proyecto. A tal fin, el concesionario deberá proporcionar al Ayuntamiento los certificados de obra y demás documentación necesaria para la tramitación de la solicitud de las mencionadas subvenciones, según lo previsto en los artículos 223.2 y 227.3 de la L.C.S.P.

En el supuesto de que el régimen jurídico de las citadas subvenciones así lo hiciera necesario, el ayuntamiento podrá promover directamente parte de las obras e instalaciones objeto del presente contrato, hasta el límite necesario para justificar la subvención correspondiente. En este caso, el órgano de contratación tomará la decisión pertinente para restablecer el equilibrio económico de la concesión."

QUINTO.- Al Ayuntamiento de Beizama le han sido reconocidas sendas subvenciones por parte del Gobierno Vasco a cargo de los programas Erein2008 (nº de exp. 322GI20080115) y Convenio EVE-IHOBE "Programa de ayudas públicas a proyectos singulares de inversión en eficiencia energética, aprovechamiento de energías renovables y reducción de gases de efecto invernadero". Para percibir dichas ayudas, el Ayuntamiento de Beizama debe proceder a la acreditación del pago de las inversiones realizadas.

Visto todo lo anterior, adjudicador y adjudicatario acuerdan formalizar el presente convenio con arreglo a las siguientes

CLAUSULAS



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

PRIMERA.- El Ayuntamiento de Beizama realizará una operación de tesorería con la entidad Iparkutxa, que tendrá como límite el importe de las subvenciones acordadas por parte del Gobierno Vasco y ya mencionadas en el apartado quinto.

SEGUNDA.- Enerpellet, S.L. ingresará en la tesorería del Ayuntamiento de Beizama un canon equivalente a la diferencia entre el coste de la inversión, incluido IVA, y el importe de las subvenciones que este Ayuntamiento reciba.

TERCERA.- El Ayuntamiento de Beizama procederá al abono de la factura girada por Enerpellet en el plazo más breve a partir del cumplimiento de las dos anteriores, es decir, la efectiva disposición del crédito y el abono del canon.

CUARTA.- Todos los gastos derivados de la generación de crédito a corto plazo que contraerá el Ayuntamiento de Beizama, serán abonados por Enerpellet S.L.

QUINTA.- En el momento en que el Ayuntamiento de Beizama perciba las subvenciones referidas, procederá a la inmediata cancelación de la cuenta de crédito contratada al efecto.

SEXTA.- La cantidad abonada por el Ayuntamiento de Beizama a Enerpellet S.L., tiene la consideración de pago anticipado de las instalaciones en los edificios públicos pendiente de realización descrita en el proyecto presentado y referidas en el apartado tercero de los antecedentes.

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio por duplicado en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento."

Bigarrena.- Aurkeztutako fakturen ordainketa dagokionean egitea onartzen da, baina hitzarmen hau sinatu eta betetzera baldintzatuz.

Hirugarrena.- Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea, Beizamako Udaleko alkatea, eskuordetzea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

BOSGARRENGO GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, URKOME ELKARTEARI EGIN BEHARREKO
EKARPENA EGITEA ONARTZEA.

Ikusirik, Urkome elkarteak jakinarazi duela bere ohiko funtzionamenduagatik Beizamako Udalari ordaintzea dagokion ekarpena.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Beizamako Udala Urkome elkarteko partaidea dela eta ordainketa egitearekin ados dagoela.

Aurrekoa kontuan hartuz eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 22.2 artikuluan araututakoa, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Bakarra.- Beizamako Udalari dagokion ekarpena egitea onartzea.

SEIGARRENGO GAIA

**ONARTZEA, BADAGOKIO, UROLA ERDIALDEKO ZERBITZU
MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPENA EGITEA ONARTZEA.**

Ikusirik, Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitateak jakinarazi duela bere ohiko funtzionamenduagatik Beizamako Udalari ordaintzea dagokion ekarpena.

Ikusirik, Beizamako Udala Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitateko partaidea dela eta jakinarazpenean adierazitako zerbitzuak jasotzen dituela.

Aurrekoa kontuan hartuz eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 22.2 artikuluan araututakoa, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Bakarra.- Beizamako Udalari dagokion ekarpena egitea onartzea.

ZAZPIGARRENGO GAIA

**ONARTZEA, BADAGOKIO, IHOBE ERAKUNDEARI, UDALSAREA21GATIK
DAGOKION URTEKO KUOTA ORDAINTZEA.**

Ikusirik, IHOBE erakundeak jakinarazi duela Udalsarea21gatik Beizamako Udalari ordaintzea dagokion kuota eta ordaintzea eskatu duela.

Ikusirik, Beizamako Udalak gai honen inguruko datuak egiaztatzea beharra duela lehenik.

Aurrekoa kontuan hartuz eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 22.2 artikuluan araututakoa, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Bakarra.- Ordainketa atzeratzea eta IHOBeri hainbat datu eskatzea.

**ZORTZIGARRENGO GAIA
GALDERA ETA ESKAERAK.**



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ez daude

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 20:40etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.